



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 30a

124. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—11-24/PRO-00015. Foru Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00118. Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko arratsaldeko larrialdi-zerbitzua berriz ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00121. Erabakia, zeinaren bidez Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen baitira errespetatzen Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00124. Erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00126. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultur mezenasgoa arautzen duen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan eta mezenasgoaren plataforma digitala sor dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00128. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten baitu eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren 2018ko azaroaren 8ko txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen baitu. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00123. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guztiak azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin. Osasun Batzordeak onetsi du (7. or.).

- 11-24/MOC-00120. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehiakortasun fiskalaren hobekuntza izan dadin aldaketa fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).
- 11-24/MOC-00122. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita trafikoaren arloko eskumen osoa har dezan bere gain. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).
- 11-24/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa handieneko sektoreetako enpresa nafarrei zuzenduak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

\

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00015. Foru Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 17an egindako bilkuran, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru lege proposamena onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

HITZAURREA

Auzitegi Gorenaren 2023ko otsailaren 28ko epaiaren ondoren nafar mutualisten eskaerei soluzio bat emate aldera, foru lege honek aldatu egiten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginaren bigarren xedapen iragankorra, halako moldez non, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei eginiko ekarpenetatik eratorritako Gizarte Segurantzako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioak ez baitira geratuko aipatu xedapenaren aplikaziotik salbuetsita.

Halaber, 2024ko zergaldian aplikatzekoa den aparteko kenkari bat arautzen du Gizarte Segurantzarengandik 2020-2023 zergaldietan erretiro- edo baliaezintasun-prestazioak jaso zituzten subjektu pasiboentzat, harako prestazioak zeinak eratorriak baitziren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru-kontratueta 1979ko urtarrilaren

1a baino lehenago egin eta fiskalki kengarriak izan ez ziren ekarpenetatik. Kenkariaren zenbatekoa banaka zehazten da subjektu pasibo bakoitzarentzat, Gizarte Segurantzarengandik jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen eta 2020-2023 epeko zergaldietan eginiko autolikidazioen arabera.

Hori horrela, aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina.

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginaren aldaketa.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginaren manu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. Bigarren xedapen iragankorra, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

"Bigarren xedapen iragankorra. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei ezarriko zaien araubide iragankorra.

1. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru-kontratuetatik eratorritako erretiro- eta baliaezintasun-prestazioak lan-etekin gisa sartuak izan beharko dira zerga-oinarrian, baldin kontratu haietarako 1999ko urtarrilaren 1a baino lehenago eginiko ekarpenekin zerga-oinarria parte batez behintzat minoratua izan bazen.

2. Zerga-oinarrian sartze hori halako neurrian egiten da non jasotako zenbatekoak gainditu egiten baititu unean uneko lege indardunen poderioz zerga-oinarrian murriztu edo minoratu ahal izan ez diren mutualitatearentzako ekarpenak, zeinak, beraz, jada zergapetuak izan baitira.

3. Baldin ezin bada frogatu zerga-oinarrian murriztu edo minoratu ahal izan ez diren ekarpe-

nen zenbatekoa, jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen ehuneko 75 sartuko da zerga-oinarrian".

Bi. Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria gehitzea, eragina 2024an izanen duena.

"Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. Aparteko kenkaria, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei eginiko ekarpenen ondorioz 2020tik 2023ra bitartean Gizarte Segurantzarengandik jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen ondoriozkoa.

1 Kasuko kuota diferentziala zehaztu ondoren, baldin subjektu pasibo batek 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenago ekarpenak egin bazituen gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru-kontratueta, harako ekarpenak zeinek, fiskalki kengarriak ez izateaz gainera, Gizarte Segurantzarengandik 2020, 2021, 2022 edo 2023ko zergaldietan erretiro- edo baliaezintasun-prestazio bat jasotzeko eskubidea sorrazi baitzuten, orduan zilegi izanen du 2024ko zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan aparteko kenkari bat aplikatzea, honako apartatu hauek xedatzen dutenaren arabera zehaztua.

2. Kenkariaren zenbatekoa aipatu zergaldietan subjektu pasiboak ordainduko ez zukeen kuota diferentzialaren arabera zehaztuko da, ez-ordaintze horren zenbatekoa izanik gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin eginiko aseguru-kontratuengatik 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenago eginiko ekar-

penei zegokien Gizarte Segurantzarengandiko erretiro- edo baliaezintasun-prestazioaren parteari ehuneko 25eko murrizketa aplikatu izan balio suertatuko zatekeena.

Ondorio horietarako, murriztuko den partearen da 2020, 2021, 2022 eta 2023an jasotako prestazioaren zenbatekoari koefiziente bat aplikatzearen emaitza, harako koefizientea zeina suertatuko baita 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kotizazioegunen kopurua zatitzetik prestaziorako eskubidea eman duten egun kotizatuen guztizko kopuruaren artean.

3. Baldin eta, familia-unitateko kide bat baino gehiagok izanik kenkaria aplikatzeko eskubidea, familia-unitateko kideek aukeratu bazuten baterako aitortena egitea prestazioak jaso ziren zergaldietan, orduan, 2024an kenkariaren zenbatekoa banaka zehaztuko zaie, aipatu zergaldietako bakoitzean familia-unitateko kide bakoitzak jasotako prestazioaren proportzioan.

4. Kenkaria aplikatu ahalko da baldin eta subjektu pasiboa Nafarroako Foru Ogasunarekin zergapetu bada berak Gizarte Segurantzarengandik aipatu zergaldietan jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen osoko zenbatekoaz, eta kasu horretan bakarrik".

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra, legean bertan aurreikusitako efektuekin.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00118. Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko arratsaldeko larrialdi-zerbitzua berriz ezar dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 17an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko arratsaldeko larrialdi-zerbitzua berriz ezar dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu 2025eko lehen hiruhilekoan osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plan bat aurkez dezan Nafarroarako eta, aurkeztu ezean, Erriberriko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren Eten-gabeko Arretarako Gunea berriz ere ezar dezan”.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00121. Erabakia, zeinaren bidez Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen baitira errespetatzen Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 17an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen baitira errespetatzen Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen ditu Nafarroako

Parlamentuaren gehiengoaren borondatea errespetatzen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen.

2. Nafarroako Parlamentuak Gorte Nagusietako talde parlamentarioei eskatzen die epeak luzatu gabe egin dezaten horri buruzko bozketa, albait azkarren bete dadin gure autogobernua, trafikoaren eskumena Nafarroari eskualdatzeari dagokionez”.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00124. Erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 17an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan”.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00126. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultur mezenasgoa arautzen duen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan eta mezenasgoaren plataforma digitala sor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 17an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultur mezenasgoa arautzen duen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan eta mezenasgoaren plataforma digitala sor dezan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kultur mezenasgoa eta

haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan, gure erkidegoko kultura-errealitate berrietara egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du mezenasgoaren plataforma digitala sor dezan”.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00128. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten baitu eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren 2018ko azaroaren 8ko txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen baitu

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 17an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten baitu eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren 2018ko azaroaren 8ko txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen baitu. Hona testua:

“Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten du eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren 2018ko azaroaren 8ko txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen du.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pirinioetako Plan Estrategikoa bultzatzen eta garatzen jarrai dezan eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostenean jaso baina oraindik bete ez diren gomendioak bete daitezen lan egin dezan.

Hirugarrena: Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Nafarroako Kontuen Ganberaren gomendioa –Pirinioetako Plan Estrategikoaren antzeko ereduak ezartzea Nafarroako beste eremu despopulatu batzuetan, despopulazioaren aurka borrokatzeko–, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du gomendio hori abian jartzea azter dezan”.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00123. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guztiak azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin

OSASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2024ko urriaren 23an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guztiak azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guztiak berehala hasi eta azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin, Cascanteko osasun-etxe berria eraikitzeko konpromisoa bete gabe baitarama 2021etik”.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00122. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita trafikoaren arloko eskumen osoa har dezan bere gain

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 17an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita trafikoaren arloko eskumen osoa

har dezan bere gain. Mozioa 2024ko urriaren 15eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa handieneko sektoreetako enpresa nafarrei zuzen-duak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 17an egindako bilkuran, ezetsi egin du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarte-ko Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar adinako aurrekontu-zuzki-dura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa

handieneko sektoreetako enpresa nafarrei zuzen-duak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko. Mozioa 2024ko urriaren 15eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00120. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehiakortasun fiskalaren hobekuntza izan dadin aldaketa fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 17an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Irene Royo Ortín andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehiakortasun fiskalaren hobekuntza

izan dadin aldaketa fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria. Mozioa 2024ko urriaren 15eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias